

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIALANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

40.000 bat kirolarik federazioetako beren ordezkariak aukeratuko dituzte datorren urtean

Nafarroako Gobernuak hauteskunde-prozesu hori erregulatzeko arauak onartu ditu, urte olinpiarrekin egokituko dena

Lunes, 24 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak kirol-federazioen datorren urteko hauteskunde-prozesuak erregulatzeko [araua](#) onartu du, eta hauteskunde horietan 40.000 bat kirolarik parte hartu ahalgo dute.

Hauteskundeak 2016ko ekainaren 30a baino lehen egin beharko dira, erakundeak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari epea luzatzeko eskaera egin badio salbu, eta [urte olinpiar](#)arekin egokituko dira. Federazio guztietan egingo dira, Neguko Kiroletakoetan izan ezik (2018an egingo dira), azken hori Neguko Olinpiar Jokoen egutegiaren arabera antolatzen baita.

Hautesleen kopuru zehatza federazioek beren erroldak osatzen dituztenean jakingo da. Botatu ahal izateko, beharrezkoa da adinez nagusia eta federazioko lizentzia indarrean izatea hauteskunderen urtean eta aurreko urtean. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak emandako datuen arabera, 2014an 75.156 lizentzia zeuden, haietatik 34.853 adin txikikoenak.

Foru Komunitatean 43 kirol-federazio daude gaur egun, haiek guztiak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak babestuta, eta Nafarroako Gobernuak diren eskumenak eskuordetuta dituzte. Honako hauek dira: Urpeko Jarduerak, Xakea, Atletismoa, Automobilismoa, Badminton, Saskibaloia, Eskubaloia, Beisbola eta Sofbola, Ehiza, Txirrindularitza, Kirol Egokituak, Aire Kirolak, Neguko Kirolak, Mendiko Kirolak eta Eskalada, Eskrima, Espeleologia, Futbola, Gimnastika, Golfa, Halterofilia, Herri Kirolak, Hipika, Judoa, Karatea, Kickboxinga, Motoziklismoa, Igeriketa, Padela, Patinajea, Pilota, Arrantza, Piraguismoa, Arraunketa, Errugbia, Salbamendu eta Sorospena, Taekwondo, Tenisa, Mahai Tenisa, Arku Tiroa, Tiro Olinpikoa, Triatloia, Bela eta Boleibola.

Hauteskunde-prozesua

Kirol-federazioetarako aurreikusitako hauteskunde-prozesuak behartzen die, lehenik eta behin, batzar orokorrak hautatzera. Organo



Belakoa datorren urtean hauteskundeak izango dituen federazioetako bat da.

horiek federazioak eratzten dituzten lau kirol-estamentuetako ordezkariak osatzen dituzte: klub, kirolari, teknikari eta epaileak. Erakunde horietako estatutuetan talde bakoitzari dagozkion ordezkari-tasak jasotzen dira.

Hutesle edota hautagarriaren izaera, lehen esan den moduan, huteskundearen urtean eta aurreko urtean federazioaren lizentzia edukitzeak ematen du. Batzar orokorra ziklo olinpiarreko lau urteko aldirako hautatzen da; tarteko huteskundeak batak ordezteko dira.

Batzarra hautatzen denean, bertako kideek lehendakaria aukeratuko dute, eta azken hori ziklo olinpiarrean zehar aldatu ahalko da zentsura-mozioan edo hark dimisioa ematen duenean.

Huteskunde-prozesua huteskunde-araudi eta -egutegi batek arautzen dute, federazioek beraiek egin eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak onartzen duena. Izan daitezkeen errekursoak Nafarroako Kirol Justizia Batzordeari zuzenean igorriko zaizkio, eta aurrez federazio bakoitzaren huteskunde-batzordean errekurritu ahalko da.

Federazioek beren webguneetan huteskunde-prozesu horri lotutako informazioa argitaratuko dute, esaterako: araudia, deialdia, errolda, eta huteskunde-batzordearen aktak eta ebazpenak, besteak beste.